

INAUTERIAK

Ez da erraza inauterien jatorriari buruz ezer definitiborik esatea, Neolitikoko nekazarien garaitik datozen ohiturak, Kristautasunaren esku-hartzearekin eta gizartearen beraren garapenarekin aldatzen joan dira-eta.

Hala ere Europa mailan ospatzen diren inauteriek, hau da, nekazari giroan oinarritutako dramaturgia horiek guztiak, lotura estua zuten, dirudinez, urte sasoia-rekin. Sasoi berezia da. 1) Nekazarien lan nagusiak egiteko garaia da: zuhaitzak inausi eta sailak jorratu behar dira. 2) Intsektuen fauna ikusezina larba egoeran dago eta, une honetan, arrisku handiz hazten ari da. Egoera hori kezkagarria da, oso, laborariantzat, landatutakoa honda dezakeelako eta, ondorioz, gosetea ekarri. 3) Garizumaren atarian gaude (hortik letorke, akaso, aratuste izena, Garizumako haragi uztearen iragarpenetik).

Zer dira, beraz, **jatorrian**, inauteriak?

- Zenbait adituren iritziz, **udaberriko errito-egintzak dira, ugalketaren antzirudipean, izadiaren biziberritzea adierazten dutenak**. Euskal Herrian, adibidez, “inauteri” hitza “inausketarekin” (zuhaitzen indarberritzearekin) lotzen da. Zarata egiteko ohitura ere ereite garaia-rekin lotzen da, zaratak lurra esnatuko zuela uste baitzuten (zintzarriak, joareak, oihuak, irrintziak,... horren erakusgarri izango lirateke).
- **Gosea, gaixotasuna eta eromena uxatzeko indar handiko dramaturgiak eta antzezpenak dira.** “Mozorro” hitzak ere garbi erakusten du “zomorro”-n duela oinarria. Gaixotasuna, izurriak, gosea eta gizartearen hondamena hainbat metafora harrigarriren bidez adierazten dira. Gaixotasunak zenbait mozorroren bidez: kaskarotsak, zamarreroak,... Izurriak, adibidez, animalien bidez: zaldi, hartz, otso, bigantxa, zezen edo ahuntz mozorroen bidez. Irudi horien guztien atzean otia dago. Intsektu horren jatuntasun izugarriak gosera garamatza zuzenean. Gosea, berriz, belarrezko edo lastozko panpina, erraldoi eta munstroen bidez adierazten da. Oti izurria eta gosetea zirela-eta, gizarte antolaketa hausteko arrisku bizia zegoen. Horixe da inauterietan agertzearen arrazoia.
- Beste hainbat adituren iritziz, ordea, inauteriak, *Saturnalia* izeneko **erromatar jaietan dute jatorria**. **Saturnaletan**, Erroman, **itzelezko jatorduak, mozkorraldiak eta era guztietako lizentziak izaten ziren**. **Herri ordena iraultzen zen** esklaboak aginteko maila gorenean jarri.
- Kristautasunak jaiak bereganatu eta mugatu egin omen zituen: Aste Santua baino 40 egun lehenago hasi eta haragia uzteko debekua hasten zen egunean bukatu (hausterre eguna). Horregatik *aratusteak* deitzen zaie bazter askotan: garizumako ostiraletan haragia jaterik ez zegoenez, **haragia utzi aurreko festak (sexualak eta gastronomikoak)** ziren inauteriak.

NAFARROAKO LANTZEKO INAUTERIA

Lantzko inauterietan hiru pertsonaia nagusi bereizten dira. Horietako bat Ziripot da. Buruan kapela, aurpegi estalia eta gorputza belar eta iratzez trinkotutako zakuan sartua darama. Bere ibilera baldarrean makila du lagun. Beste bat Zaldiko da. Zaldikoren irudia zaldi buru eskematiko bat da, egurrezko egitura batean eraikia eta gazte muturbeltz batek gerrian lotuta eramatzen duena. Atzealdean zintzilik, benetako abere isatsa duka. Zaldiko Ziripot botatzen saiatzen da etengabe. Perrataileak hura harrapatu eta perratzen saiatuko dira, kontrolatu nahian. Azkenik, Miel Otxin erraldoia daukagu. Bi pago adarrez osatua eta belarrendoz eta garoz barrutik betea. Bide-lapurra dela dio bertako tradizioak, herritik ihes egin nahian dabilen bide-lapurra. Atxilotu eta epaitu ondoren, tiroka hil eta erre egiten dute, eta gainerako mozorroek antzinako dantza bat egiten dute haren inguruan. Hiru pertsonaia horiekin batera doaz zalaparta bizian, zintzarriak joaz, oihuka eta irrintzika, txatxoak.

Azaldutako lehendabiziko teoriaren arabera, hiru pertsonaia horien esanahi sinbolikoa honako hau izango litzateke: Ziripoten mozorroak intsektu baten larbaren antza du. Zaldikok otia irudikatzen du, larba heldua, errealitatea. Eta Miel Otxinek gosea.



Bibliografia:

- “euskal herria eta festa”. Santiago Yaniz eta Juan Antonio Urbelz. ELKARLANEAN S.L., 2004
- “Euskal Herria, etnografia, historia”. Juan Garmendia Larrañaga EUSKO IKASKUNTZA, 2008
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Inauteriak_Euskal_Herrian

INAUTERIAK

No es fácil decir nada definitivo acerca de la procedencia del carnaval, ya que las costumbres provenientes de la agricultura neolítica han ido evolucionando con la intervención del cristianismo y el desarrollo natural de la sociedad.

Aún así, parece ser posible que el carnaval que se celebra en toda Europa, es decir, toda esa dramaturgia de inspiración campesina, tenga una fuerte relación con el momento del año en que se representa. 1) Es la época de realizar las tareas más importantes del quehacer agrícola: la poda de los árboles y la escarda de los campos 2) La invisible fauna insectil se encuentra larvada y en una peligrosa fase de crecimiento, cuestión que preocupa, y mucho, a los campesinos ya que puede echar a perder los cultivos y traer consigo la hambruna 3) Es un tiempo que precede a la cuaresma (el propio nombre del carnaval anuncia el abandono cuaresmal de la carne, *carne levare*).

¿Qué es, pues, el carnaval en sus orígenes?

- **Es un rito de primavera, la vida que se renueva en el aspecto de la abundancia.**

En el País Vasco, la palabra “inauteri” recoje la idea de la poda que hace referencia a la regeneración de los árboles. La costumbre de hacer ruido se enlaza, así mismo, con la época de la siembra, ya que se creía que de ese modo podían despertar a la tierra (los cencerros, gritos, irrintzis,... darian muestra de ello).

- **Son construcciones dramatúrgicas y representaciones poderosas capaces de frenar el hambre, la enfermedad y la locura provocadas por los insectos.**

En euskara la voz para “disfraz”, presente en las palabras zomorro o mozorro, se confunde con la de “insecto”. La enfermedad, las plagas, el hambre y la desvertebración social son representadas mediante insólitas metáforas. La enfermedad aparece fijada al nombre de algunas máscaras (kaskarots, zamarreros,...). Las plagas tras máscaras de animales como el caballito, el oso, la vaquilla, el toro o la cabra. Detrás de todas ellas hay un sólo insecto: la langosta. El inagotable apetito de este insecto nos lleva directamente al hambre. El hambre viene representado por muñecos, “gigantes” y otras formas mostruosas de hierba y paja. Tras el paso de las plagas de langosta y el hambre el riesgo de desvertebración social era palpable. Esa es la razón de su presencia en el carnaval.

- Según la opinión de otros expertos, el carnaval debe su origen a las ***Saturnalia, fiestas romanas*** en las que se celebraban **comilonas, borracheras y se concedía todo tipo de licencias**. Se invertía el orden social colocando a los esclavos en la cúspide del poder.

- El cristianismo se apropió de las fiestas limitándolas: empezaban 40 días antes de la Semana Santa y terminaban con la prohibición de comer carne (miércoles de ceniza). Por eso, en muchos lugares, se les llama “aratustea” pues los viernes de cuaresma no se podía comer carne; eran, por tanto, las **fiestas (sexuales y gastronómicas) que se celebraban antes de la vigilia**.

EL CARNAVAL DE LANTZ EN NAFARROA

En el carnaval de Lantz destacan tres personajes. Uno de ellos es Ziripot. Lleva sombrero, la cara enmascarada y el cuerpo embutido en sacos rellenos de heno y helecho. En su difícil y torpe andadura se sirve de un palo o makila. Otro es el Zaldiko. Su figura es una esquemática cabeza de caballo construida sobre un armazón de madera, que un joven de cara tiznada sujetó alrededor de su cintura. Por detrás, lleva colgada una auténtica cola de animal. El Zaldiko busca en todo momento derribar al Ziripot. Los herreros tratarán de capturarlo y controlarlo poniéndole las herraduras. Y el último de los personajes es el gigante Miel Otxin. Lo montan aprovechando dos ramas de haya y llenándolo de heno y helecho. La tradición del lugar dice que era un bandido que intentaba huir del pueblo. Después de apresarla y juzgarla, lo ejecutan y lo queman mientras el resto baila a su alrededor. Junta a esas tres figuras completan la representación los “txatxo’s”, que haciendo sonar los cencerros, van ambientando, con sus gritos e irritzis, el momento.

El significado simbólico de esos tres personajes sería el siguiente: los tres figurantes principales cumplen cada año con su función de pasear por las calles al insecto en forma de larva o Ziripot, junto a la plaga de langosta representada por el Zaldiko o “caballito”, a la que sigue el gigante Miel Otxin representando al hambre.



Bibliografía:

- “euskar herria eta festa”. Santiago Yaniz eta Juan Antonio Urbeltz. ELKARLANEAN S.L., 2004
- “Euskal Herria, etnografía, historia”. Juan Garmendia Larrañaga EUSKO IKASKUNTZA, 2008
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Inauteriak_Euskal_Herrian

